



Errenterriako Udala

ANIZTASUNEAN
OINARRITUTAKO HERRITAR
BIZIKIDETZARENTZARAKO PLAN
ESTRATEGIKOA
2019-2023

AURKIBIDEA

1. Marko teorikoa.....	3
2. Ildo estrategikoak.....	12
3. Jarraipen teknikoko fitxak 2019.....	26
4. Kronograma.....	45
5. Planaren ebaluazioa.....	51

MARKO TEORIKOA

Sarrera

Gaur egun, migrazioek toki berezi bat berenganatu dute mendebaldeko gizarteetan, bai eztabaida akademikoetan bai gobernu guztien agendetan. Gizarte multikulturalak, integrazio-prozesuak, kulturarteko hezkuntza, herritartasuna eta hainbat eta hainbat kontzeptu eta nozio gehiago, askotan zehaztasunik gabe erabiltzen ditugunak, gure paisaia mediatiko eta sozialaren parte bihurtu dira dagoeneko. Euskal Herria, eta Errenteriako udalerrria noski, ez da prozesu horietatik guztietatik kanpo geratu. Munduko hainbat tokitako jendea etorri zaigu, urrunagotik eta hurbilagotik, eta, ezberri gabe, horrek hainbat galdera, kezka eta aukera sorrarazi ditu Gipuzkoako herri honetan.

Nolanahi ere, oker geundeke aniztasunaren gaia gaur egungo migrazio-mugimenduekin soilik lotuko bagenu. Aniztasuna edozein gizarteren osagaia izan delako, delako eta izango delako beti. Gaur egun beste toki batzuetatik etorritako jendea hartzen duten gizarteek kulturalki homogeneo agertzeko hamaika ahalegin egin arren, gaiari sakonagotik heltzen badiogu, begirada historiko eta kritiko batetik, gure gizarteak betidanik askotarikoak izan direla ohartzen gara. Eta gainera, argi dago aniztasuna eta hari lotuta dagoen desberdina izateko eskubidearen eskakizuna ez dela soilik migratzaileen eskutik etorri, aktore multzo zabal batean ere nabarmendu direlako, hainbat testuinguru historiko, ekonomiko eta politikotan: gutxiengo etnikoak, gutxiengo nazionalak, gay eta lesbiana taldeak, erlijio-talde minoritarioak, etab.

Errenteriako udalerrria, begirada historiko horretatik, XX. mendearen hasieraz geroztik eraiki eta eraldatu da, etengabean, bere historia migratzailearen bitartez. 50eko eta 60ko hamarkadetan gertatu zen udalerriko eraldaketa demografiko handiena, Estatuko pobretutako eremuetatik jende asko etorri zelako abiada bizian garatzen ari zen industrian lan egitera. Prozesu horren ondorioz, 1975ean gutxi gorabehera, Errenteriako herritarren % 54 Gipuzkoako beste eskualde batzuetakoa zen, % 5,5 Euskadiko gainerako eskualdeetakoa, eta % 40,1 Estatuko gainerako eskualdeetakoa. Garai hartan, Errenteria eskualdeko migratzaile-indize handieneko udalerrria izan zen¹.

XXI. mendearen hasieran migrazio-fluxu berriak garatzen hasi dira, eta Errenteriarra ere iritsi dira. Joan den mendean ez bezala, migratzaileak Europako beste herrialde batzuetatik, Afrikatik eta Amerikatik datoz gaur egun, baita Asiatik ere, neurri txikiagoan. Hala, une honetan Errenteriako herritarren % 9,61ek atzerriko jatorria dute. Errenterian 39.392 pertsona bizi dira guztira, eta haietatik 3.786k atzerriko jatorria dute. Lehen bost nazionalitateak honako hauek dira: Maroko, Kolonbia, Honduras, Portugal, Ekuador eta Nikaragua. Eta, jarraian, Errumania, Ukraina eta Frantzia². Hortaz, Latinoamerikako jatorria duten herritarrak dira udalerrian pisu

¹ Ikus "La inmigración en Errenteria. Diagnóstico y políticas de intervención", *Mugak. Centro de estudios y documentación sobre racismo y xenofobia*, 2012.

² Biztanleen Udal Erroldako on-line datu-basetik hartu dira datu horiek (2017).

handiena dutenak, eta, jarraian, Magrebeko jatorrikoak. Aipatzekoa da sexuaren arabera nahiko biztanleria orekatua dela, emakumeak pixka bat gehiago badira ere³. Gipuzkoako testuinguruan, atzerriko herritarrak % 9,5 dira, eta beraz Errenteriako ehunekoa pixka bat gaineratik dabil. Ehuneko hori % 11,3 da Arabarentzat eta % 8,8 Bizkaientzat⁴.

Une honetan, Errenteriako edozein auzotako herritarren zati bat honako atal hauetan sailka dezakegu:

- *Barneko migratzaileak edo migratzaile nazionalak*: XX. mendeko garai desarrollistan edo geroago Estatuko beste eremu batzuetatik iritsi zirenak. Gure ustez, iraganeko barneko migrazio-mugimenduak aintzat hartzea funtsezkoa da euskal gizarteak bere memoria migratzailea ezagutu eta berreskura dezan eta, bereziki, bere aniztasunaz eta heterogeneotasunaz kontzientzia har dezan.
- *Bertako gutxiengo etnikoak*, ijito herritarrak adibidez.
- *Atzerritar jatorriko egoiliarrak* (Espainiako nazionalitatea hartu edo ez, lehen belaunaldikoak izan edo migratzaileen seme-alabak izan), komunitate soziokultural bereziak eratu dituztenak.
- *Generoaren, adinaren* (gazte taldeak edo hiri-tribuak), *erlijiotasunaren* (gutxiengo musulmana, protestantea, ortodoxoa, etab.), *sexu-orientazioaren eta dibertsitate funtzionalaren araberako* azpikulturak.

Funtsezkoa da aniztasunaren mapa zabaltzea aktore horiek guztiak barne hartzeko, eta ez bakarrik azken urte hauetan Errenteriara iritsi diren (eta iristen jarraituko duten) pertsonak, bestela ikuspegi erredukzionista batera makurtuko ginatekeelako, aniztasuna egungo migrazio-prozesuekin soilik lortuz. Ikuspegia eraldatuz diskurtsoa ere aldatuko dugu, “gu” homogenea aipatuz “besteak” aipatu beharrean, azken hori exotikoaren eta folklorikoaren isla ez ezik, susmagarriaren eta arrakatsuen adierazgarria ere badela aintzat hartuta. Begirada edo ikuspegi erredukzionista horietan erortzen ez bagara, etorkizunean jarrera xenofobo eta arrazistak saihesteko bidean egongo gara.

Nolanahi ere, aniztasuna egungo migrazio-prozesuekin soilik lotzea bidezkoa ez bada ere, horrek ez du esan nahi migratzaileek egoera espezifiko bat bizi ez dutenik; izan ere, oso egoera kaltebera batean aurkitzen dira, eta batzuetan bazterkeria-egoeran ere bai. Hortaz, diskurtso eta praktiketan oreka berezi bat bilatuko dugu honako hauen artean:

- aniztasunaren inguruko begirada zabaltzea, migratzailearen “kulturalizazio” sinplista batean ez erortzeko....

³ EIN Estatistikako Institutu Nazionalaren datuak, www.ine.es (2016).

⁴ Ikuspegi@k Immigrazioaren Euskal Behatokia emandako datuak dira, www.ikuspegi.eus.

- ...migratzaileen eta haien premien espezifikotasuna ikusezin bihurtu gabe.

Oreka hori lortzea ez da beti erraza izaten. Horretarako oso baliagarria izan daiteke aniztasunaren alorreko diskurtso, kontatzeko modu eta praktikak eskubide eta betebeharren ardatz nagusi bihurtzea. “Bestea” bere berezitasunean onartu behar da, eskubide eta betebeharren subjektua den heinean.

Eta kontua ez da “Bestea” tolerantzia pasibo soiluz onartzea. **Giza eskubideen** kontu bat da. Izan ere, Kultura Aniztasunari buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsalaren 4. artikulua ezartzen duenez, *“kultura-aniztasuna defendatzea betebeharrerik da, gizakien duintasunaren errespetutik banaezina”*. Bigarren artikulua, berriz, honela dio:

“Gure gizarte gero eta dibertsifikatuagoetan, ezinbesteko bihurtu da elkarrekintza harmoniatua eta elkarrekin bizitzeko borondatea bermatzea kultura-identitate aldi berean plural, anitz eta dinamikoak dituzten pertsona eta gizataldeei. Hiritar guztiak barnean hartuko dituzten eta partaidetza suspertzen dituzten politikek gizarte-kohesioa, gizarte zibilaren bizkortasuna eta bakea bermatzen dituzte. Horrela definituta, kultura-pluralismoa kultura-aniztasunaren egitateari ematen zaion erantzun politikoa da. Demokraziako testuinguruari nahitaez loturik, kultura-pluralismoak kultura-trukeak eta bizitza publikoa elikatzen dituzten gaitasun sortzaileen garapena suspertzen du”.

Hortaz, artikulua honetan jasotako kultura-pluralismoak aniztasunaren ikusmolde jakin bat suposatzen du, baita proposamen politiko jakin bat ere legegintzan eta erakundeetan aniztasun horri praktikan heltzeko moduaren inguruan:

- Aniztasuna **positiboa eta aberasgarria** da. Hirugarren artikulua ezartzen duenez: *“Kultura aniztasunak zabaldu egiten ditu edonori eskaintzen zaizkion aukerak; garapenaren iturrietako bat da, betiere garapena hazkuntza ekonomiko soilaz haratago, edonor asetzeko bizitza intelektual, afektibo, moral eta espiritualaren lortzeko bide gisa ulertuta”*.
- Proposamen politiko jakin bat diogu **kultura-pluralismoa** urrundu egiten delako aniztasuna bazterkerian (apartheida, antisemitismoa, etnozidioa, etab.) edo homogeneizazioan (asimilazionismoa, *melting pot*, ladinizazioa, etab.) oinarrituta kudeatzea proposatzen dutenetatik. Horrelako ereduaren aurrean, kultura-pluralismoa **inklusio-eredu** bat da, funtsezko bi printzipio hauetan oinarrituta:
 - ✓ Berdintasunaren printzipioa, edo jatorria, sexua, erlijio-sinesmenak, etnia edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal edo sozial direla-eta diskriminaziorik ez pairatzeko printzipioa.
 - ✓ Desberdintasunaren printzipioa edo “Bestea” errespetatu eta onartzekoa.

Giza eskubideen ezinbesteko eta beharrezko ikuspegi horretatik, **kontzeptuzko esparru teorikoa** zehaztuko dugu jarraian, jardun zehatzak diseinatu eta gauzatzeko **euskarri** moduan. **Aniztasunaren praxiaren** aldeko apustuak **funts** sendoak behar ditu, borondate oneko diskurtso orokor batean gera ez dadin.

Esparru teorikoa: Herritarren Kulturarteko Bizikidetzaz

Bizikidetzaz

Zergatik ez utzi gizarte-prozesuak berez, “naturaltasunez”, gara daitezzen, eta, denborarekin, pertsonak, pixkana-pixkana iritsi berri diren gizartean “naturaltasunez” integra daitezzen, beren eta beren senitartekoen bizitza bertako errealitatearekin bat eginez? Hainbat ikuspuntutatik erantzun dezakegu: lehenik, gizarte-prozesu orok ez du ezer ere “naturaletik”, eta bigarren, hainbat esperientzia historiko eta garaikidek erakusten digutenez, edozein gizarteren aniztasuna aintzat ez hartzea oso arriskutsua izan daiteke **gizartearen kohesio eta bizikidetzarentzat**.

Bizikidetzaz-kontzeptua funtsezkoa da aniztasunaren praktikotasunari heltzerakoan, hau da, udal-esparru partekatu bateko kideen arteko **ohiko elkarreragin-praktikei** dagokienez. Esparru horretako herritarren arteko elkarreragina zein haien eta erakundeen arteko harremana biltzen ditu kontzeptu horrek. Eta botere politikoan gero eta ohikoagoa da kontzeptu horrez jabetzea aniztasuna kudeatzeko politikak diseinatu eta inplementatzean. Alabaina, zehazki eta maila operatiboan, zertaz ari gara kontzeptu hori hizpide hartzen dugunean?

Bizikidetzaz, Kulturarteko Esku-hartze Komunitarioko Proiektuak (ICI)⁵ garatutako lanari jarraikiz, **harreman positibo** bat da. Baina ez gatazkarik ez dagoelako, gatazka sortzean hitz eginez eta neurritz kudeatzen delako baizik. Koexistentzia-egoera batzuetan pertsonen arteko harreman edo elkarreraginak oso urriak dira, eta askotan gatazkak ezkutuan egoten dira; bizikidetzaz, aldiz, eraiki beharreko zerbait da, prozesu dinamiko bat alegia. Eraikuntza horrek lau erreminta eskatzen ditu: ikastea, tolerantzia, arau komunak eta gatazkaren erregulazioa.

Nabarmentzekoa da **tolerantziaren** ideia, desberdina den hori onartu beharrean baikaude. Tolerantziatik eta desberdinaren errespetutik soilik lortuko dugu arau komun batzuk ezartzea, eta, hortik abiatuta, pertsona desberdinak batzen dituen ere azpimarratzea.

Herritartasuna

Herritartasunak ardatza izan behar du kulturarteko bizikidetzaz baten eraikuntzan. Herritartasuna hizpide hartzen dugunean, honako hauez ari gara:

1. Eskubide eta betebeharren titulartasuna.
2. Komunitate soziopolitiko baten kide izatea, haren konstituzioak eta legeriak eskubide eta betebeharrak onartzen dituelarik.

⁵Ikusi: <https://obrasociallacaixa.org/es/pobreza-accion-social/interculturalidad-y-cohesion-social/proyecto-de-intervencion-comunitaria-intercultural/que-hacemos>

3. Eskubide eta betebeharrak horiek errespetatu eta betetzen direla zaintzeko ardura duten erakundeak.

Herritartasuna ardatza dela diogu lurraldean bizi diren guztiak batzen dituelako, hau da, guztiak eta bakoitza herritar bihurtzen dituelako. Hortaz, gure gizartearen aniztasunari dagokionez gizarte-kohesioa aipatzen dugunean, eskubide eta betebeharren titulartasuna azpimarratu behar dugu bereziki. Hain zuzen ere, eskubiderik eza eta haren haritik datozen bazterkeria sozioekonomikoak (eta ez kultura-arloko aldeak) dira gizarte-kohesioa ahultzearen atzean dauden arrazoiak.

Herritartasunaren araberako planteamendu hori funtsezkoa da, halaber, kulturarteko bizikidetzaren kultura-desberdintasunen goseste eta handiagotze soil bihurtuta ikusi nahi ez badugu. Ezinezkoa da gizarte-prozesuak kultura-faktoreen arabera soilik azaltzea, faktore ekonomiko eta politikoak kontuan hartu gabe. Gainera, aldeak gosestea da, hain zuzen ere, “kultura-fundamentalismoa” —gizarte-bazterkeriarako erretorika eta estrategia berria— darabiltenen tresna.

Hortaz, **herritartasun inklusiboaren** kontzeptua aldarrikatzen dugu: “Estatuko ordenamendu juridikoan bildutako nazionalitate-kontzeptua birformulatuko du EAEn eskumenen eremuan (...) Ezinezkoa da egiaz integratzea etorkin egoiliarrei herritarrak direla eta, horren ondorioz, herritartasunak EAEn ematen dituen Eskubide eta betebeharrak guztien titularrak direla, berdintasunez, aintzat hartu gabe”⁶. Izatezko egoiliartasuna da herritartasun inklusibo horretarako eskatzen den lotura.

Kulturartekoa

Esparru horren konfigurazioan bereziki garrantzitsua da bizikidetzaren eta kulturartekotasunaren arteko harremana ulertzea eta behar bezala aztertzea. Oro har, esperientziaren haritik datozen ikuspegiak ez dute aniztasuna aintzat hartzen, edo bestela gehiegi nabarmentzen dute, aniztasunaren gaia identitate eta elementu exotikoen azoka soil bihurtuz, bizikidetzari ezer gutxi laguntzen diona. Zoritzarreko efektu horien ondorioz, normalean, **kultura-kontzeptua** oso modu pobre eta sinplista batean ulertzen da, baita kulturak gizarteratze-prozesuetan betetzen duen zeregina ere.

Izan ere, oraindik ere oso hedatua dago kultura ezin aldatuzko ezaugarrien multzo bat delako ideia. Horren arabera, ezaugarri horiek, gizarte baten oinarria osatzeaz gain, gizarte horri izaera jakin bat ematen diote, nortasun berezi, homogeneo eta guztiz mugatu bat. Ezbairik gabe, mendetan zehar bizirik iraun duten kultura-tradizio bereziak aurki daitezke, baina kulturak betidanik elkarren artean nahastu direla ahaztu gabe, kulturen arteko mugak betidanik lausoak izan direla, eta kulturen arteko topaketak, berriz, ugariak.

Kultura-elementuei esanahi immanente bat eman beharrean, gizarte-prozesu jakin batzuen barruan erabiltzen direnean elementu horiek hartzen dituzten ñabardura eta **esanahi aldakorrak** hartu behar dira kontuan. Ikuspegi horretatik gizarteetara hurbiltzeko ahalegin bat egiten badugu, ez dugu gehiago ikusiko gainjarritako edo

⁶ Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana 2007-2009, 61. or. eta hurrengoak

elkarren aurkako kulturen pluraltasun bat, kulturen arteko **interpenetrazioa** eta elkarrekiko erabilera orokor eta ohiko bihurtutako gune bat baizik.

Kulturala ulertzeko ikuskera horretatik bizikidetzak kulturartekoa dela ondorioztatuko dugu, eta beraz, kulturartekotasun hori honela defini dezakegu: *“adierazpide berri bat kultura-pluralismoaren barruan, desberdina ez ezik komuna ere aintzat hartuz berdintasuna, askatasuna eta elkarreragin positiboa sortzen duen praxi bat sustatzen duena banako subjektuen edo kulturalki bereizitako kolektiboen arteko harremanetan”*⁷.

Hortaz, aldeak (kulturalak, erlijiosoak, linguistikoak, etab.) jendaurrean onartu ondoren, batzen gaituena azpimarratu behar da, kulturarteko laguntza eta lankidetzak horretatik komuna denaren esfera hori eraikitzeko. Azken helburua honako hau da: ***“berdintasuna desberdintasunak errespetatuz, aniztasuna errespetatuz berdintasunezko, aniztasunaren barruko batasunezko esparru batean”***⁸.

Funtsezko printzipioak

Giza Eskubideak, Berdintasuna eta Diskriminaziorik eza

Giza eskubideen eta giza duintasunaren errespetua oinarritzeko printzipio gisa ezartzeak eskatzen du giza eskubideei lehentasuna ematea lehen orientazio-printzipio gisa. Ikuspegi horrek kontzeptuzko esparru bat eratzen du, ikuspegi arau-emaitza bat —Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta hura garatzen duten Hitzarmen, Itun eta Adierazpenak— eta ikuspegi operatibo bat eskainiz. Horrek suposatzen du dokumentu honetan proposatzen diren ekintza guztiek giza eskubideen sustapena eta babesa bete behar dutela.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Planak ezartzen duenez: berdintasun-printzipioak giza eskubideen titulartasuna alaitzeko zabaldu izatea dakar, EAERI dagozkion eskumenen eremuan. Eta eskubide zibilek ez ezik, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloko eskubideek ere ari gara eta bertan bizi diren guztientzat orokortzen dira eskubide horiek, haien nazionalitatea kontuan izan gabe; eskubide politikoez ere mintzo gara, Erkidegoaren ordenamendu juridikoan txerta daitezkeen neurrian.”

Gainera, eskubide eta betebeharren berdintasun formal horrek bi dimentsio dauzka:

- Tratu-berdintasuna, eta, beraz, jatorriagatiko, hizkuntzagatiko, erlijioagatiko, sexuagatiko eta beste edozein arrazoigatiko diskriminazioa debekatzea.

⁷ Ikus GIMÉNEZ ROMERO, C.: “Convivencia: conceptualización y sugerencias para la praxis” in Cuadernos Puntos de Vista (2005), Observatorio de las Migraciones y de la Convivencia Intercultural de la Ciudad de Madrid.

⁸ GIMÉNEZ ROMERO, C. (2013): “Promoviendo la convivencia ciudadana intercultural en barrios de alta diversidad. Ideas y experiencias para una praxis comunitaria” in Buades Fuster, J. eta Giménez Romero, C. *Hagamos de nuestro barrio un lugar habitable*, CeiMigra Fundazioa, Valentzia, 2013, 36-57.

- Aukera-berdintasuna: pertsona guztiek gizartean aukera berberak edukitzeko eskubidea dute, eta botere publikoen esku uzten dute neurri jakin batzuk hartzea sustraitutako aurreiritzien biktima diren talde jakin batzuen gizarte-desabantaila orekatzeko.

Genero-ikuspegia

Genero-ikuspegia sartzeak eskatzen du, lehenik eta behin, “generoa” zer den ongi ulertzea. Generoa **kultura-erakuntza** bat da. Hortaz, genero-ikuspegiak gizonen eta emakumeen arteko harremanak aztertzen ditu kultura-erakuntzak diren heinean. Beraz, genero-identitateak elkarren artean eraikitzen dira, eta, testuinguru historiko, ekonomiko eta politiko jakin batean emakumea izatea zer zen ulertzeko, testuinguru horretan gizonak zer ezaugarri zeuzkan ere hartu behar da kontuan. Generoa **erlazio edo egitura** bat dela ulertu behar dugu, eta hortik abiatuta hasi behar dugu lanean, generoa berriz ere biologizatzea ekar lezaketen neurrietan ez erortzeko.

Bigarrenik, **generoaz eta aniztasunaz** hitz egitean, testuinguru soziokultural desberdinetan emakume- eta gizon-kontzeptuak nola eraiki diren aztertu behar dugu. Feminista postkolonialek, genero-harremanek hartzen dituzten moduak historian eta testuinguruan kokatuz, “emakumeen” eta “patriarkatuaren” gaineko diskurtso unibertsalizatzaileak okerreko irudikapenak direla frogatu digute. Alabaina, okerrak izateaz gain, diskurtso horiek botere-efektuak ere badituzte emakume horien bizitza kolonizatzen duten heinean.

Emakume migratzailea, latinoamerikarra, afrikarra, etab., objektu bihurtzen bada, mendebaldeko feminismoaren irudi kontrajarri bat ematen du. “Besteen” aurrean, mendebaldeko emakume zurien autokonplazientziatzko irudi atsegina ematen digu ispiluak. Eta hortik ondorioztatzen dugu emakume guztiek gure autoestimu- eta ahalduzko-kontzeptuak partekatzen dituztela. Diskurtso horiek arazo larri bat dakarte, ordea, praktika politiko baztertzatzaileak dakartzatelako berekin, emakume beltz, latino eta indigenen eta beste hainbaten espezifikotasunak agenda feministetan biltzen eta integratzen ez dituztenak.

Hortaz, praktika eta agenda politika barne-hartzaileak sortzeak **feminismo solidario** bat eskatzen du, erreferentziazko esparru partekatu baten barruan. Horretarako, **berdintasunezko begirada transkultural** batetik jardun behar da, **kolonizatze**ko asmoetatik urruti.

Erljio-aniztasuna

Euskal gizartea, Europako beste hainbat bezala, multikulturala eta erlijio-aniztuna da gaur egun. Pluraltasun hori bilakaera historiko luze baten ondorio da, eta erlijioak zeresan handia izan du bilakaera horretan nabari diren borroka eta gatasketan. Hortaz, Europako gizarteetan erlijioak lortu duen garrantzia iragan horren emaitza da, baina iragan horren emaitza da, halaber, goraka doan pluralismoa, neurri batean, Europako

tradizio judeokristauaz bestelako erlijio-adierazpenak inportatu izanaren ondorio izatea.

Neurri handi batean, erlijio-kultu eta erlijio-adierazpen berriak sartzeak herritar talde berriak ezartzeko prozesuekin du zerikusia, beren erlijio-tokiak eta erlijio-praktikak berreraikitzen dituztelako (edo ahalegintzen dira behintzat) ezartzen diren toki orotan. Txertatze-prozesu horietan, ondo dakigu erlijio-adierazpen eta erlijio-kultu guztiak ez direla era beran hautematen edo kategorizatzen espazio publikoan. Batzuek harrera hobea aurkitzen dute, eta beste batzuek, aldiz, erresistentzia handia.

Erljio-pluraltasunari buruzko eztabaidan, **bertako gizarteek erlijio berriei buruz eraikiko duten iritzia, neurri handi batean, erlijioak espazio publikoan eduki behar duen tokiaz gizarte bakoitzak duen ikuspuntuaren mende egongo da.** Hala, laikotasunak erlijioaren ukazioa dakarrela uste badugu, erlijio-aniztasunaren gaiari heltzeko aukera bertan behera utziko dugu. Aitzitik, iruditzen bazaigu Estatu laikoarentzat ezinezkoa dela erlijio-adierazpenen aurrean ez ikusiarena egitea edo axolagabekeriak jokatzea, eta adierazpen horiek beste desberdintasun bat (etnikoarekin edo kulturalarekin batera) baino ez direla, gizarte demokratiko plural batean legezkoa eta zuhurtziazkoa litzateke erlijio horiek guztiak onartzeko, errespetatzeko eta ahal den neurrian egokitzeko formula politikoak diseinatzea.

Erljio-gertaerak espazio publikoan eduki behar duen tokia ulertzeko bigarren ikuspegi horren alde egiten badugu, erlijio-aniztasunari buruzko politika publikoek honako printzipio hauei jarraitu beharko diete:

1. **erlijio guztientzat tratu-berdintasuna bermatzea,**
2. **erlijio-askatasunaren printzipioa mantendu eta bermatzea haren zentzu negatiboan,**
3. **publikoaren arau-egitura edozein erlijio-eraginetik babestu behar da**

Hizkuntza(k) eta migrazioa

Migrazio-mugimenduen kasuan, harrerako gizartearen hizkuntzak ikastea funtsezkoa da gizarteratzeko prozesuen dimentsio guztietan: lana, hezkuntza, harremanak, afektibitatea, etab. Euskal gizarteak bi hizkuntza ofizial dauzka, eta egoera soziolinguistiko korapilatsu bat, bi hizkuntzek oso presentzia desberdina dutelako euskal lurraldeko eremuen arabera. Azken hamarkadetan errealitate horrek, hau da, euskara hizkuntza gutxitua izateak, ahalegin handia eskatu du erakundeen eta gizartearen aldetik, euskara normalizatzeko bidean.

Gauzak horrela, egoiliar orori **bi hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko eskubidea bermatu** beharko zaio, haren jatorria edo bestelako kontsiderazioak edozein direla ere. Helburu hori betetzeko bidean, azpimarratzekoa da hizkuntza-eskubideak testuinguruarekin estu lotuta daudela, hau da, eskubideak aplikatu nahi diren tokiaren errealitate soziolinguistikoak baldintzatuko du eskubide horien edukia, ezinbestean.

Hortik abiatuta, eta Errenteriako errealitate soziolinguistikoa eta euskara hizkuntza gutxitua dela aintzat hartuta, **atzeritar jatorriko pertsoneri euskara ikasi eta erabiltzeko bidea bermatuko dieten prozedurak lehenetsi eta areagotu beharko lirateke.** Prozedura horiek progresibitate-printzipioaren arabera bideratu beharko

lirateke “XXI. mende-hasierarako hizkuntza-politikaren oinarriak”⁹ dokumentuan ezarritakoari jarraikiz, hau da, egin daitezkeen zereginen aurrean lehentasunak ezarri beharko lirateke, eta ekintza-eremuak hautatu. Esaterako, migratzaile askoren jatorriak eta lan-nitxoak aintzat hartuz, hala nola etxeko zerbitzuak eta ostalaritza, programa espezifikoak diseinatu beharko lirateke lanekoak ez ezik oso sozialak ere badiren nitxo horietan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatu eta sustatzeko.

Orobat, beste toki batzuetatik datozen pertsonen hizkuntzak onartzea eta aintzat hartzea garrantzitsua izango da hizkuntza-aniztasuna goraka doan testuinguru honetan.

Glosarioa

Bizikidetza: elkarrekin bizitzearen ekintza (elkarreragina) eta elkarrekin bizi direnen arteko harremana. Koexistentziaz haratago, bizikidetza eraiki behar da, eta horrek eskatzen du, batez ere, ikastea, tolerantzia, arau komunak eta gatazkaren erregulazioa.

Kulturartekotasuna: aniztasun soziokulturala kudeatzeko proiektu politikoa, kultura-pluralismotik abiatuta, harreman eta elkarreragin soziokulturalean zentratzen dena, herritartasun-kontzeptu berri baten inguruan.

Herritartasun inklusiboa: herritartasun sozial eta efektiboa, non egoiliartasun egonkorraren lotura den kide izateko eta subjektu gisa onartzeko arrazoia.

Diskriminazioa: gizarte-bizitzaren hainbat eremutan pertsona bati tratu desberdindu bat ematea, jatorri, sexu, etnia, erlijio edo beste edozein arrazoigatik.

Arrazakeria: talde zuriak talde edo herri ez-zuriak menderatzeko sistema soziala, eguneroko eta orokor bihurtutako praktika negatiboen bitartez implementatua, eta gizarteak kanpo-taldearen arrazako edo etniazko desberdintasunen inguruan eraikitako eta oro har gutxietsitako ezagutza sozial partekatuez informatua (Van Dijk).

⁹ “XXI. mende-hasierarako hizkuntza-politikaren oinarriak” dokumentua, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Vitoria-Gazteiz, 2009.

ILDO ESTRATEGIKOAK

1. **Herritarren kulturarteko parte-hartze eta bizikidetzaren bultzatzea, garatzea eta sustatzea**

Ilido estrategiko honen bitartez **aniztasunaren kultura** bat landu eta eraiki nahi da. Horretarako, gizarte gisa eratzten gaituzten aniztasunaren errekonozimendua eta agerikotasuna politika publikoen funtsezko puntu bihurtzen dira. Errekonozimendu eta agerikotasun horiek hainbat dimentsio dituzte: sinbolikoaren eremua, ordezkagarritasun-politikak, herritarrek parte hartzeko prozesuak, eta abar. Horiek guztiak uztartu beharko dira aniztasunaren politika berri hori sortu ahal izateko.

Helburuak:

- Aniztasunaren kudeaketa bultzatzea udalerrian eta eskualdean, aniztasunaren balio positiboa (*diversity advantage*) aprobetxatuz garapen sozial eta ekonomikoa sustatzeko.
- Dauden errealitateen (jatorria, kultura, erlijioa, hizkuntza, sexuaren ondoriozkoak) errekonozimendua eta agerikotasun publikoa sustatzea udalerrian komunikabideen bitartez, horien ezagutza bultzatuz diskurtso inklusiboa sortzeko.
- Jatorri desberdinetako pertsonen presentzia sustatu eta indartzea erakunde sozialetan, sindikatuetan, enpresa-erakundeetan, eskoletan, kultura-erakundeetan eta erakunde politikoetan.
- Jatorri desberdinak dituzten pertsonen topaketa eta elkarrenginerako guneen sorkuntza bultzatzea, kide izatearen sentipen komun bat eraikitzeko.
- Hezkuntza-eremu formalarren eta ez-formalarren agente nagusiekin lan bateratua bultzatzea eta garatzea, posible diren kompetentzien barnean.

2. Aniztasunaren politika bat egituratu eta antolatzea erakunde barnean eta erakunde artean

Erakunde-maila desberdinen arteko elkarrizketa eta antolaketa ezinbestekoak dira: lehenik, aniztasunari eta haren beharrezko kudeaketari buruzko adostasun politiko orokorra eta zabala sortzeko. Bigarren, administrazioa osatzen duten erakunde desberdinetan aniztasun-ikuspegia, kulturarteko ikuspegia zeharkako moduan sartzea lortzeko. Hirugarren, politiken garapen logikoa eta koherentea egiteko, horien arrakasta eta eraginkortasuna bermatu ahal izateko. Azkenik, antolaketa horrek bikoiztasunak saihestea eta baliabideen eraginkortasunaren maximizazio gorenaren lortzea ahalbidetzen du.

Helburuak:

- Erakunde-lankidetzaren antolatzea aniztasunaren kultura eraikitzeko.
- Udalerriko politika publikoetan nabardura jartzea kultura-aniztasunetik eta beste agente batzuekin batera.
- Errenteriako pertsona iritsi berrientzako Harrera Protokoloa garatzea

3. Diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako borroka


Nazionalitatean, jatorrian, erlijioan edota sexuan oinarritutako diskriminazio oro ezabatzea, giza eskubideak, eskubide zibil eta politikoak, nahiz ekonomikoak, sozialak eta kulturalak betetzen direla bermatuz, lan-ildo nagusietako bat da.

Badakigu krisi ekonomikoko uneak bereziki kritikoak direla bertako herritarrentzat, aniztasunarekiko dituzten harremanetan. Horrela, Europa osoan, ikusten ari gara une hau aproposa izaten ari dela gizartearen gehiengoak diferentzetzat jotzen dituen pertsonen aurkako zurrumuru eta estereotipo xenofobo eta arrazistak hedatzeko.


Diskriminazio-adierazpen eta/edo diskriminazio-ekintza oro gaitzetsi eta kondenatuko duen gizarte inklusibo eta plural baten alde lan egitea ezinbesteko eta funtsezko eskubide-auzi bat da. Funtsezko zutabe hori da gure gizartearen kohesio soziala bermatuko duena.

Helburuak:













- Diskriminazioaren (jatorriagatik, erlijioagatik, sexuagatik eta abar) aurka borrokatzeko erakunde-mekanismoak sustatu eta sortzea.).

Garatu eta egikaritutako ekintzak 

Garatzen hasitako ekintzak 

Garatu gabeko ekintzak 

I. ildo estrategikoa: Herritarren kulturarteko parte-hartze eta bizikidetzaren bultzatzea, garatu eta sustatzea

Helburuak	Jardun-ildoak	Agente estrategikoak	Ekintzak
Aniztasunaren kudeaketagaitasunen bultzatzea udalerrian etagarapenean eta udalerriko merkatari-elkarteetan. eskualdean, aniztasunaren balio positiboa (<i>diversity advantage</i>) aprobetxatuz garapen sozial eta ekonomikoa sustatzeko.	Enpresaburu migratzaileei laguntzea euren enpresa-kontratazioa, OARSOALDEA, kanpainen bitartez. Hirugarren Sektorea (Banaiz bagara, ko-fabrika), Errenkoalde.	Giza Baliabideak eta kontratazioa, OARSOALDEA, kanpainen bitartez. Hirugarren Sektorea (Banaiz bagara, ko-fabrika), Errenkoalde.	 Enpresei aniztasunaren balio positiboak ohartaraztea sarrien eta kanpainen bitartez.  Ikertzea eta etxeko langileekin lan egiten jarraitzea.  Merkatari-elkarteen eta merkatari berrien artean zubiak sortzea informazioaren bitartez.  Kooperatibismoa aprobetxatzea.
Toki-administrazioetatik erosahalmena erabiltzea (kontratazioaren alorrean) helburu sozialak, gizarteratzeak eta juridikoak lortzeko.	Giza Baliabideak eta kontratazioa, OARSOALDEA.	Giza Baliabideak eta kontratazioa, OARSOALDEA.	 Kuotak inorporatzea migratzaileentzat.  Migratzaileen enpleguarekiko sarbidea errazten duten irizpideak.  Errekonozimendua migratzaileak kontratatu ondoren.  Pertsonengan sustraitzeagatiko erregularizazioa sustatzea.
Aniztasunaren balio positiboa erabiltzea kohesioa eta bizikidetzaren hobetzeko.	Kultura Saila, Komunikazio Saila, Kultura-aniztasunaren Saila, Kultura Aniztasunaren Aholku Kontseilua, Gizarte Zerbitzuen Saila, Udaltzaingoa.	Kultura Saila, Komunikazio Saila, Kultura-aniztasunaren Saila, Kultura Aniztasunaren Aholku Kontseilua, Gizarte Zerbitzuen Saila, Udaltzaingoa.	 Bernardo Atxagaren manifestua hedatzea.  Udal-bitartekaritzaiko talde edo figura bat inplementatzea.  Kultur aniztasunaren sailaren presentzia (posizionamendua) Udalaren webgunearen barnean.  Atlantika Idia.

Garatu eta egikaritutako ekintzak

Garatzen hasitako ekintzak











Garatu gabeko ekintzak

Dauden errealitateen (jatorria, kultura, erlijioa, hizkuntza, sexua eta abarren ondoriozkoak) errekonozimendua eta agerikotasun publikoa udalerrian sustatzea komunikabideen bitartez, horien ezagutza bultzatuz diskurtso inklusiboa sortzeko.	Kulturarteko ikuspegia agerian jarri eta barnean hartzea kanpaina publikoetan edo Udalaren diskurtso publikoetan eta udalerriko komunikabideetan.	Komunikazio Saila, Hizkuntza-politikako Saila, Kultura Saila, egin zaidazu bisita" lema hartuz sailaren azpisailaren OARSOALDEA, eskualdeko marka/eslogan gisa. komunikabideak(Hitza: oarsoaldea/Diario Vasco, Irratia), ZAS, Eraberean.	<input checked="" type="radio"/> Komunikazio-kanpaina bat sortzea "Errenterian bizi naiz eta, egin zaidazu bisita" lema hartuz sailaren azpisailaren marka/eslogan gisa. <input checked="" type="radio"/> Estrategiak ikertzea jarraibide horiek ohitura gisa barnean hartzeko. <input checked="" type="radio"/> AISA matrikulazio-kanpaina. <input checked="" type="radio"/> Madalenetako/Inauterietako Kartelak, informazio-orriak. <input checked="" type="radio"/> Herribizia (papera eta webgunea). <input checked="" type="radio"/> Kultur agenda.
		Abestiko, bideoklipeko, markesinetako eta aurreko protagonistak. Madalen aliantza kontzertuko	<input checked="" type="radio"/> "Egin zaidazu bisita" abestiaren parte-hartzaileak kontuan hartu
	Agintari publikoen presentzia eta eskaintzea hainbat talde edo garrantzi berezia duten ekitaldietan.	Alkatea eta zinegotzia, Komunikazio Saila, Saila.	<input checked="" type="radio"/> Hainbat kolektiboren egutegietako erlijio eta jai giroko egunak barnean hartzea. <input checked="" type="radio"/> Pertsona gonbidatu azpimarragarriak.
	Ekitaldiak egitea, debata kritikoa irekitzea, non gai konplexuak eta aztertuko dituzten, sentsibleak langile adituak komunikabideak sentsibilizatzeko eta estereotipoak apurtzeko.	Herritarren Aliantza, Kultura Aniztasunaren Kontseilua, Eraberean, ZAS, Komunikazio Saila.	<input checked="" type="radio"/> Udaleko langileen eta politikarien presentzia jarduera kulturaletan/erlijiosoetan. <input checked="" type="radio"/> Zineforuma. <input checked="" type="radio"/> Erakusketak. <input checked="" type="radio"/> Aste tematikoak. <input checked="" type="radio"/> Komunikazio-ekitaldi edo komunikazio-estrategia puntualak. <input checked="" type="radio"/> Gonbidatu azpimarragarriak.

Garatu eta egikaritutako ekintzak 


Garatzen hasitako ekintzak 





Garatu gabeko ekintzak 

Jatorri pertsonen sustatu eta erakunde sindikatuetan, erakundeetan, kultura-erakundeetan eta erakunde politikoetan.	Beste komunitate batzuetako pertsonak bertako kultura- eta kirol-ekintzetan aktiboki parte har dezaten sustatzea, ez soilik ikusle gisa.	Kultura Saila, Hizkuntza-politikitako Saila, Auzo Elkarteak, IGE, Gehitu, Gortuen Elkarteak, Berdintasunaren Saila.	 Zeinu-hizkuntza barnean hartzea.  Ikuspegi <i>intersektzionala</i> hartzea jarduera eta agendetan (generoa, etnia edo jatorria, klase soziala, hizkuntza).  Jatorri desberdinetako aurkezleak eta begiraleak txertatzea.  Egintzen edukia zabaltzea (cricketa kirol gisa barnean hartzea, beste sukaldaritza-elementu batzuk sartzea hainbat festatan, adibidez San Tomas egunean, beste kolektibo batzuen parte-hartzea ahalbidetzeko).  Hainbat jatorritako kolektibo edo pertsonak espresuki gonbidatzea.
Egun dauden migratzaileen asoziazionismoa indartzea (prestakuntza, genero-ikuspegia, zuzeneko diru-laguntza lerroak, eta abar.).		Herritarrak, Gizalde, GKEen Koordinakundea, Harresiak Apurtuz, K bulegoa, Ondarea.	 Lokaletarako eta bilera geletarako sarbidea. Elkarteak Aholku Kontseilura gonbidatzea.  Gipuzkoako elkarre-mapari buruzko informazioa areagotzea (baliabideak, sorkuntza).  Hainbat elkarre, pertsona eta proiekturen (elkarre gastronomikoak, IGE, kirol-elkarreak eta abar) artean zubiak sortzea eta horien zeharkakotasuna bultzatzea.
Aniztasuna, genero-ikuspegia eta aniztasun funtzionala barnean hartzen dituzten hirugarren sektoreko jarduerari eta kirol- eta kultura-jarduerari diru-laguntzak ematea.		Herritarrak.	 Fitxa bat sortzea, diru-laguntzak emateko ikuspegi askorekin.  Erakundeentzako prestakuntza garatzea (haien intereseko gai desberdinak).

Garatu eta egikaritutako ekintzak 

Garatzen hasitako ekintzak 

Garatu gabeko ekintzak 

	<p>Bertako kultura- eta kirol-elkarteei beste jatorri batzuetakoak eta/edo bertako gutxiengoetakoak (adibidez ijito herritarrak) diren udalerriko artistak edo kirolariak programa ditzaten eskatzea.</p>	<p>Herritarrak, Komunikazio Saila, Auzo Elkarateak, Ikastetxeak, Kultura Saila, "K bulegoa".</p>	<p> Artisten eskaintzaren zerrrenda bat egitea eta elkarleen artean banatzea.</p> <p> Berdintasun eta garapenerako neurriak eta/edo irizpideak sortzea ekitaldien/erakusketen/lehiaketen programaziorako (adibidez: Madalenetako kartelen lehiaketa).</p>
	<p>Genero-ikuspegia eta/edo gai kulturarteko edo funtzionala duten artisten obrei babesa ematea.</p>	<p>Kultura Saila, Berdintasunaren Saila, Komunikazio Saila, Kontratazioa, OARSOALDEA, Elkarateak, Gizarte Zerbitzuak, Ikastetxeak.</p>	<p> Artisten eta horiek hedatu eta promozionatzeko dauden Saila, Komunikazio Saila, posibilitateen artean zubiak eraikitzea.</p> <p> TORREKUA proiektua.</p> <p> Gai horiek lantzen dituzten artisten berri ematea bertako komunikabideetan.</p> <p> Beste toki batzuetako abeslariak kontuan izatea (Herri Aliantza abestia).</p>
	<p>Erakunde tradizionalen kultura-ekintzen ospakizuna eta hiri-erdialdeko eta lokal ospetsuetako zerbitzu edo irekietara baliabide iraunkorrak gune eta auzo estigmatizatuetara/narriatuetara lekualdatzea. Era berean, aurrekontuko zati bat hirigintza-hobekuntzara bideratzea.</p>	<p>Kultura Saila, hirigintza eta hiri-mantenua, Komunikazio Saila, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, segurtasun eta parte hartze Kontseilua.</p>	<p> Ekitaldiaren kokalekua baloratzea beste leku batera lekualdatzeko.</p> <p> Leku narriatuei/estigmatizatuei zenbateko espezifiko bat eskaintzea.</p> <p> Proiektu komunitario espezifikoak sortzea (Iztieta-Ondartxo).</p> <p> Leku horietan zerbitzu/baliabide espezifikoak bat sortzea.</p>

Garatu eta egikaritutako ekintzak

Garatzen hasitako ekintzak



Garatu gabeko ekintzak

<p>Jatorri desberdinak dituzten pertsonen topaketa eta elkarreraginerako guneen sorkuntza bultzatzea, kide izatearen sentipen komun bat eraikitzeko.</p>	<p>Errenteriako jai- eta jolas-guneetan kulturarteko ikuspegia txertatzea.</p>	<p>Kultura Saila, Hezkuntza eta Gazteria Saila, Kirol Saila, Auzo Elkarteak, Musika- eta dantza-eskola.</p>	<p><input checked="" type="radio"/> Aniztasunaren Egunaren ospakizuna. <input checked="" type="radio"/> Madalenetako jaiak: munduko taloen saltokia, Buru Beltz buruhandia, aniztasuna eta neska-mutilak, eta Alliantza abestia. <input checked="" type="radio"/> Atlantikaldia. <input checked="" type="radio"/> Jatorri desberdinetako taldeekin kontzertu bateratuak egitea edo beste leku batzuetako abestiak/konpositoreak barnean hartzea, instrumentu desberdinak erabiltzea, musika- eta dantza-jarduera desberdinak egitea.</p>
<p>Euskara barnean hartzen eta lantzen duten topaketa-jarduera eta topaketa-prozesuak sortzea eta bultzatzea.</p>	<p>Hizkuntza-politikitako Saila, Hezkuntza eta Gazteria Saila, Islam zentro kulturala.</p>	<p><input checked="" type="radio"/> Arabiera- eta euskara-saioak <input type="radio"/> Hizkuntza Eskola bat sortzea. <input checked="" type="radio"/> Euskara-indartzea haur ikasleentzat. <input checked="" type="radio"/> Udalekuak. <input checked="" type="radio"/> Euskara hizkuntz propio gisa erakustea (historia, garapena, testuinguruan jartzea).</p>	

Garatu eta egikaritutako ekintzak 

Garatzen hasitako ekintzak 

Garatu gabeko ekintzak 


	Topaketa-jarduera eta topaketa-prozesuak sortzea eta bultzatzea kirola, jolasa, artea eta literaturaren bitartez.	Kultura Saila, Kirol Saila, Antzerkia, Musika eta Dantza Eskola, Dantza, Hezkuntza eta Gazteria Saila, Berdintasun Saila, Atlantikaldia, Dantzagunea, Artxiboa, Emakumeen kulturarteko gunea, Liburutegia, Gizarte Zerbitzuak.	 Antzerkia.  Dantza.  Atlantikaldia.  Emakumeen kulturarteko gunea.  Koldo Mitxelena Institutuaren aniztasunaren proiektua.  Eskola-kirola jende guztiarentzat.  Haurtzaroa eta aniztasuna taldea (hezkuntza-jarraibideak).  Ibilbide gidatu espezifikoak (Artxiboa, HHI, Liburutegia):  bisita gidatua, irakurketa erraza,  Lekuona Proiektua).
Hezkuntza-eremu formalaren eta ez-formalaren agente nagusiekin lan bateratua bultzatzea eta garatzea, posible diren kompetentzien barnean.	Familien prestakuntza eta ikastetxeekiko inplikazioa bultzatzen dituzten gune komunitarioak sortzea. Aldi baterako hezkuntza- eta gizarte-premiak dituzten ikasleen artean hurbileko ingurunean eskolaz kanpoko jardueren eta hezkuntza-ekimen ez-formalen eremua indartzen duten boluntarioak. Arrazakeria.	IGE, Ikastetxeak, Hezkuntza eta Gazteria Saila.	 Jatorri desberdinetako familiek IGEetan parte hartzeko proiektuak bultzatzea eta babestea.
	Hezkuntza Mahaia sustatzea, hezkuntza, berdintasuna eta aniztasuneko sailak koordinatzeko.	Hezkuntza eta Gazteria Saila, Eskolaz kanpoko laguntza (laguntza euskararekin), Hizkuntza-politikatako Saila, Errefuxiatu-sarea, Kirol Saila, Komunikazio Saila eta Sail Juridikoa, SOS Familia laguna.  "Urretxindorra" Mentore Proiektua.  Aniztasuna eta artearen gaiaren inguruan sari/lehiaketa/proiektu bat sortzea.	 Eskolaz kanpoko laguntza (laguntza euskararekin).  Errefuxiatu-sarea.  Familia laguna.  "Urretxindorra" Mentore Proiektua.  Aniztasuna eta artearen gaiaren inguruan sari/lehiaketa/proiektu bat sortzea.
	Hezkuntza Mahaia sustatzea, hezkuntza, berdintasuna eta aniztasuneko sailak koordinatzeko.	Udalerriko ikastetxeetako ordezkariak eta hezkuntza, berdintasuna eta aniztasunaren arloetako teknikariak.	 Zubiak Eraikiz proiektua.  Aniztasunaren Egunaren ospakizuna.  Giza Eskubideen Egunaren ospakizuna.

Garatu eta egikaritutako ekintzak


Garatzen hasitako ekintzak

Garatu gabeko ekintzak











	Aisia eta astialdiko gune ez-formalak hezkuntza-eremuari lotzea.	Hezkuntza eta Gazteria Saila, <input checked="" type="radio"/> "Herri Aliantza, aniztasuna eguneroko alor desberdinetan" Ikastetxeak, IGE, Kultura Saila, erakusketa. Liburutegia, Musika eta Dantza Eskola, Herri Aliantza. <input type="radio"/> Zubiak Eraikiz proiektua.
--	--	--

Garatu eta egikaritutako ekintzak 

Garatzen hasitako ekintzak 

Garatu gabeko ekintzak 











II. ildo estrategikoa: aniztasunaren politika bat egituratu eta antolatzea erakunde barnean eta erakunde artean.

Helburuak	Jardun-ildoak	Agente estrategikoak	Ekintzak
Erakunde-lankidetzaren antolatzea aniztasunaren kultura eraitzeko	Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Inmigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana erreferentzia eta posibilitate-esparru gisa kontuan izatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Aniztasuneko bizikidetzarako foru plana" izeneko planari lotutako jarduerak garatzea eta sailarekin koordinatzea.	Kultura Aniztasunari lotutako saila, Eusko Jauriaritza Bizikidetzaren eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza Nagusia, Kultura Aniztasunari lotutako saila.	 Aholku Kontseiluari planaren berri ematea.  Eusko Jauriaritzarekin egindako bileretara bertaratzea.  Diru-laguntzen deialdietara aurkeztea  Kanpaina espezifikoak hedatzea lurralde mailan
	Beste udal batzuetako inmigrazio edo aniztasuneko beste teknikari batzuekin ekintza-ildoak diseinatu eta garatzea.	OARSOALDEA, SOS Arrazakeria, Gipuzkoako Foru Aldundia.	 Eskualdeko hainbat teknikarirekin lan-taldeak sortzea.  SOS Arrazakeriak deitutako eskualde- edo probintzia-mailako bileretara bertaratzea.
	Errenteria Kulturarteko Hirien Sarean sartzeko posibilitatea aztertzea.	RECI.	 RECIIn sartzeko parametroak lantzea.  Aztertzea eta Getxo, Donostia eta Bilborekin harremanetan jartzea (hiru hiriak RECIIn daude).
